

# Izan direlako dira eta izango dira



## Baso berria

Gure eskualdeko bertsolaritzaren ibilbideari begira, bizpahiru anekdota etortzen zaizkit burura. Bururatzen zaizkit Joxe Agirre zenarekin lehen-biziko aldiz egin nuen saioa amaitu berrian, Orandako bertsolariak eskailerak jaisten lagundu bitartean azaldu zizkidan poza eta harridura: "Lazkao Txikik ez zian sinesten Durangon bertsolaririk sor zitekeenik; pentsa zer esango zian Algortako Bertsolari Eskolaz jakin izan balu!". Gogoan dut gugandik gertuko herri batean lagun bati jazioa, bere burua bertsolari gisa identifikatu zuenean, enborrak non zeuden esan ziotenekoa. Edo nola ahaztu UK aldi-zkariaren arbaso zen Bizarra Lepoan aldi-zkariak Algortako Bertsolari Eskolari egindako lehen erreportajearen izenburua: "Basamortuko loreak". Nola aldatu diren gauzak, kamara-da! Orain, plazetan ohikoak dira gure eskualdeko bertsolariak (are gehiago Lazkaoko aldean); txapelketaz aparte saio jendetsuenetakoak gure herrian antolatzen dira eta basamortuak Artzeren esanei kasu egin ez dieten eremuetara hedatu dira. Zilegi da gogoratzea gipuzkoar bik sortu zutela Algortako Bertsolari Eskola; ez zen, ordea, eukaliptoaren inbasiorik, gurean ondo sustraitutako tradizioa izaki (Bizkaiko Txapelketaren lehen edizioan, 1958an, Asensio Bidaurreazaga getxotarra izan zen laugarren, besteak beste). Ereindako lur hartatik 24 bertsolari atera dira aurtengo Bizkaiko Txapelketara, lehiatik kanpo gabiltzan bertsolari, epaile, gai-jartzaile eta abarrak kontatu gabe. *Getxo* eta *bertso* hitzak inoiz baino hoskideago dira; loratu da baso berria. Zerura doan hurrengoak esan diezaioala Lazkao Txikiri, han baldin badago.

### XABI PAYA

ALBEko kidea. Txapelkun 2006ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

## ALBEk ordezkaritza zabala du Bizkaiko Bertsolari Txapelketan

Getxon bertsolaritzak duen indarra goraiatzan dute behin eta berriro Getxora kantatzera datozen bertsolariek, baita jaialdiez gozatzera datozen bertsozaleek ere. Getxoko bertsogintza ez da atzo goizekoa. Horren erakusgarri dira, besteak beste, Algortako Bertsolari Eskolak datorren urtean 35. urteurrena ospatzea eta Fredi Payak *Uribe Kostako Bertsolaritza* liburuan jasotakoak, baina ezin aipatu gabe utzi ALBEk egiten duen lan bikaina. Orainxe jokatzan ari den Bizkaiko Txapelketan parte hartzen duten getxotarrak icebergaren tontorra baino ez dira; euren atzetik bertsolari eta bertsozale asko dago, bertso-eskolan martitzeno ari diren ikasle eta irakasleak,

ikasleak eta institutuetan bertsolaritza-klaseak ematen/jasotzen dituztenak, jaialdiak antolatzen dituztenak... Ale berezi honetan Getxon bertsolaritzak bizi duen loraldiaren isla txiki bat jasotzen saiatu gara. Ondoko lerroetan, aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketan aritu(ko) diren eta ALBEtik pasatako bederatzi bertsolariren argazkiak eta aurkezpenak jaso ditugu, baina ez dira arituko diren ALBEkide bakarrak izango. Joseba Santxo, epaile-lanetan, eta talde antolatzailean ari diren Nahikari Ayo eta Goizalde Atxutegi ere aipatu behar dira. Zortetik onena dene!



Fredi Paia Ruiz

Bertsolari, musikari eta etnografoa. *Uribe Kostako Bertsolaritza 1900-1980* ikerlan etnografikoaren egilea. 2000tik Bizkaiko Txapelketa guztietan finalista.



Jone Uria Albizuri

Matematikan lizentziatua. 2010ean eta 2012an finalista Bizkaiko Txapelketan. 2013ko Euskal Herriko Txapelketan finalaurrekoetara iritsi zen.



Imanol Uria Albizuri

Fisikako ikaslea. 2012an parte hartu zuen lehenengoz Bizkaiko Txapelketan. Aurten, Uribe Kostako txapelkun. Zeanuriko kanporaketa irabazita, sailkatu da.



Peru Vidal Gurrutxaga

Lehen Hezkuntzako gradua ikasten dabil EHUn. Lau aldiz parte hartu du Bizkaiko Txapelketan. 2012an Uribe-Butroe eskualdeko txapelketa irabazi zuen.



Arrate Illaro Etxebarria

Ikus-entzunezko komunikazio ikasketak. Topagunean lanean. Uribe Kostako txapelkun birritan. Bizkaikoan finalaurrekoetara sailkatu zen 2010ean eta 2012an.



Josu Landeta Egurrola

Bertsolaritza irakaslea. 1988an hasi zen ALBEen eta gaur egun bertako irakasle ere bada. 2002tik Eskualdeetako Txapelketa denetan parte hartu du.



Beñat Vidal Gurrutxaga

Lehen Hezkuntzako Irakasle ikasketak. Hezkuntza Arautuko bertsolaritza-irakasle aritu da. Berbalagun egitasmoetan dinamizatzaile ere ibili da.



Inazio Vidal Gurrutxaga

1993. urtean jaiotako leioztarra. Ikaslea. 2014an bigarren parte hartzea du Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Gaztetatik ALBEko kidea.



Itxaso Paia Ruiz

Ikus-entzunezko komunikazio eta Antzerki ikasketak. 2006an, bere lehenengo parte hartzean Uribe Kostako txapelkun. Edizio guztietan hartu du parte.

Argazkien iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkartea

### FINALERDIAK:

**Azaroak 22, Etxebarria:** FREDI PAIA, Iratxe Ibarra, Miren Amuriza, Eneko Abasolo 'Abarkas', Ander Elortegi eta Joseba Artza.

**Azaroak 30, Urduliz:** Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Beñat Ugartetxea, Gorka Ostolaza "Potxis", Julen Erezuma eta Xabat Galletebeitia.

**Abenduak 7, Amorebieta-Etxano:** JONE URIA, IMANOL URIA, Oihana Bartra, Arkaitz Estiballes, Garikoitz Sarriugarte eta Ibon Ajuriagojeaskoa.

### FINALA :

**Abenduak 20, 17:30, Bilbo, Miribillan**

## Etorkizuna bertsoan dator

Algortako Bertso Eskolak sorreratik duen martitzenetako klasera etorri gara Getxoko bertsolarien harrobia osasuntsu ote dagoen ikustera, eta lerro hauek irakurri ondoren zuk zeuk ere sumatuko duzu etorkizunean plazetan Getxoko ordezkariak ere izango dela bertso kantari.

Gaztetxo hauei galdetu diegu zer dela eta animatu diren bertso eskolara eta hauexek dira jaso ditugun erantzunak: *"Gehienbat lagunengatik eta familiaren eraginengatik"*. Beste batek dioenez, *"Bertso-udalekueetan primeran pasa nuen eta animatu egin nintzen"* Ikastetxean jasotako klaseek ere izan dute bere eragina *"Es-kolan 5. eta 6. mailan izandako esperientzia oso ona izan zen"*.

Gaur egun ALBERen martitzenetako bertso eskolan, 62 pertsona, gazte nahiz heldu, dabilta bertso-jardunean. Gaztetxoak 30 dira, hiru taldetan banatuta; gazteenak 11 urte ditu eta nagusienak 17 urte. Irakasle lanetan, Nahikari Ayo, Imanol Uria eta Beñat Vidal. Ez da, ordea, hor amaitzen harrobia; inguruko ikastoletan 60 ume inguru dabilta eskolaz kanpoko bertso-eskolan.

Ez dago dudarik, ikusi besterik ez dago gaztetxoaren iritzia: *"Oso ondo pasatzen dugu, gure artean zein irakasleekin giro itzela dago eta gainera, giro euskaldunean. Eta zergatik ez egunen batean Bizkaiko Txapelketan parte hartu"*. Izan ere, etorkizuneko gure bertsolari hauek praktikan ere jartzen dute ikasten dutena: *"Urtean zehar saioak egiten ditugu Getxoko ikastetxeetan, Olentzerotan, Eskolarteko Txapelketan. Urduritasuna izatea ona*



*da hein batean. Zenbat eta saio gehiago egin, orduan eta konfiantza handiago hartzen dugu."*

Euren gustuko bertsolariak galdetuta bertsolari hauek aipatu dizkigute: *"Igor Elortza, Unai Iturriaga, Onintza Enbeita, Jon Maia... Getxokoak ahaztu gabe eh! Paiatarrak, Uriatarrak, Landeta..."*. Bizkaiko Bertsolari txapelketaz galdetu diegunean denek, aho batez, pronostiko argia dute: *"Txapela berriz ere Getxora bueltatzea!"*.

Harrobi honekin zalantzarik ez dago Getxora bueltatuko dela. Eta bertso-saio guztietan gerta-

tzen den bezala, gurea ere ezin agurrik gabe amaitu:

*Bertsoaz gozatzeko  
hamaika aukera,  
Haietako bat duzu  
gurekin batera,  
murgildu nahi al duzu  
bertsoen artera?  
Martitzen guztietan  
hurbildu ALBERa!*

## Bertsoen bidez euskara aberasten

Getxoko Udalak 12 urte daramatza bertsolari-tza-klaseak Getxoko ikastetxeei eta institutuei eskaintzen. 2003an klase hauei ekin zitzaizenetik 5.341 ume eta gazte asko pasa dira klase hauetatik. Ikasturte honetan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 295 ikasle inguru dabil-

tza bertsolari-tza-klaseak jasotzen; ikasle hauek Andra Mari, Geroa, Gobela, Romo, J. Bta. Zabala, San Nikolas eta Zubileta ikastetxeetakoak dira. Ahoz-kotasun-klaseak jasotzen, aldiz, DBH 1. mailako 270 gazte ari dira, Aixerrota, Artatza-Romo eta San Nikolas Ikastolakoak.

Eskola hauek Euskara ordu bat hartzen dute astean behin. Bertsolari-tza-eskola horien bidez lortu nahi da, gure ikasleak era ludikoan bertsolari-tzaz jabetzea eta, orokorrean, bertso-kulturaz jantzi eta bertsozale-tzea. Esan daiteke helburuak betetzen direla; egitasmo honetan parte hartu duten ikasle asko bertso-eskolara hurbiltzen dira.

DBHn, aldiz, Bertsolari-tza landu beharrean, Ahoz-kotasuna lantzen da. Bertsoa oinarria da, baina helburua euskaraz egitea da, gazteak erakartzen dituen euskaraz. Horretarako esketxak, bideoak, piropoak, kaleko hizkuntza... lantzen dira. Ikasleek gustura hartzen dituzte eskolak eta, irakaslearen iritzi-z, ikaslearen euskara aberastu egiten da. Aipatutakoaren adibideetako bat Andra Mari ikastetxean dago, 6. mailako ikaslearen iritzi-ekin agerian utzi duten bezala. Beraiek adierazi bezala, *"bertsolari-tza-klaseak interesgarriak eta dibertigarriak dira; gainera, irakasleak ondo irakasten du"*. Ikasle horien iritzi-z, *"klaseek hainbat funtzio betetzen dituzte, batzuk bertsoei dagozkienak, hau da, bertsoak egiten ikasten dugu, errimak eta baita doinuak ere; azken finean, bertsolari-tzaren munduan barneratu"*. Baina bertso-gintza ez ezik euskara ere lantzen dute klasean, beste bi ikaslearen hitzek argitu dutenez: *"euskara maila hobetzen dugu, era dibertigarrian gainera"* eta *"euskara praktikatzeko dugu, aukera gutxi izaten dugulako eta, bide batez, kideen arteko harremanak sendotu, irekiagoak izaten ikasten dugu, sentimenduak adierazten, gure iritziak ematen"*.



## Bertso-plaza sendoa

Algortako Bertsolari Eskola (ALBE) 1980an sortu zen, Uribe Kostan bertsolari-tza zabaltzeko asmoz eta gure herriko kultura sustatu nahian.

ALBEk tradizio luzea dauka saio eta bertso-jaialdien antolaketan, 34 urte hauetan zehar ehunka saio antolatu ditu eta. ALBERen asmoa, beraz, bertsolari-tza sustatzea da, bertsolariak eta bertsozaleak sortuz, bertsolari-tza baita euskal kulturak duen berebiziko ahoz-kotasun adierazpen bereizgarria, zein tradizioan errotuta etengabe berritzen ari den.

Bide honen adierazle dira Getxon urtero arrakasta handiz burutu ohi ditugun hainbat saio, bertsolari-tzaz gozatzeko formatu tradizionalak eta berritzaileak uztartzen dituztenak: San Inaxioko jaietako bertso-saio tradizionalak; Euskal Herriko zenbait herritako bertsolari gazteak biltzen dituen *Abra Sariketa*; San Juan egunaren bueltan Algortako Portu Zaharrean ospatzen den *Balkoitik Balkoira* saioa; *Bertso Jaialdi Mundiala*, punta-puntako 6 bertsolari oholtzara igotzen dituen bertso-saio esperimentalak; edota azken urteotan burutu dugun bertso-eskolen arteko bertso-desafioa, Bizkaia Zubiaren aldetik aldera. Pozarren esan dezakegu Getxo izan badela sendotuz doan bertso-plaza.

